

A blurred photograph of a crowd of people walking, showing legs and lower bodies in various colors like blue, white, and yellow, creating a sense of motion.A circular graphic composed of 17 colored segments, each representing a Sustainable Development Goal. The colors include shades of blue, green, orange, red, and pink. The segments are arranged in a ring around a central white circle.

**Euskal Udalerrien
ekarpena Euskadiko
2030 AGENDA**

EUDEL

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

1

2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak.
Tokiko ekintzak sustatuz aurre egin
beharreko mundu mailako erronka

2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak

Tokiko ekintzak sustatuz aurre egin beharreko mundu mailako erronka

2015ean Nazio Batuek Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren parte diren 17 Helburu onartu zituzten. Agenda horrek helburuak 15 urtetan lortzeko plana ezartzen du. Garapen Jasangarrirako Helburu (GJH) horiek pobreziaarekin bukatzeko, planeta babesteko eta mundu osoko pertsonen bizitza eta ikuspegia aldatzeko deia dira.

ZERGATIK DA BEHARREZKOA GARAPEN JASANGARRIA?

Garapen jasangarria da egungo beharrak asetzeko gai dena, datozen belaunaldien gaitasuna arriskuan jarri gabe. Horregatik, garapen jasangarria lortzeko, etorkizun inklusiboa, jasangarria eta pertsonentzat eta planetarentzat erresilientea dena izateko esfortzua egin behar da.

Garapen jasangarria lortzeko ezinbestekoa da oinarritzko 3 elementu bateratzea: hazkunde ekonomikoa, gizarte inklusioa eta ingurumenaren babesa. Elementu horiek haien artean erlazionatuta daude eta funtsezkoak dira pertsonen eta gizartearen ongizaterako.

Pobrezia desagertzea, bere forma eta dimentsio guztietan, ezinbesteko baldintza da garapen jasangarrirako. Helburu hori kontuan hartuta, hazkunde ekonomiko jasangarri, inklusibo eta bidezkoa sustatu behar da. Horretarako, pertsona guztientzat aukerak sortuz, desberdintasunak gutxituz, oinarritzko bizi-maila hobetuz, gizartearen garapen inklusiboa eta bidezkoa bultzatuz eta baliabide naturalen eta ekosistemen antolaketa integratu eta jasangarriaren alde eginez.

ZER ERAKUSTEN DIGUTE GJHeK?

Garapen Jasangarrirako Helburuek ZER erakusten digute, baina batez ere NOLA Xedea ez da justifikatzea GJHak lortzeko zer egiten ari garen. Zer gehiago egin dezakegun aztertzen ari gara, bereziki, nola lan egin dezakegun guztiok batera gehiago eta hobeto egiteko. Zentzu horretan, 4 gako garrantzitsu identifikatu daitezke:

1.- GJH ekintza. Ezinbestekoa da GJHak ekintza gisa azaltzea. Izan ere, soilik osagai berri eta hobeekin lortu ahalko ditugulako emaitza berri eta hobeak. 2030era begira, helburu nagusia elkarlanean aritzea da ekintza berri eta aldagarriak sustatzeko.

2.- Lankidetzatik. Hainbat langile sarean lanean ari direnean, ez direlako soilik gehitzen, baizik eta biderkatu egiten direlako. Garapen jasangarriagoa lortzeko, gizarte gisa hainbat erronkari aurre egin behar diegu eta, horretarako, beharrezkoa da gure esfortzuak batzea. Lankidetzak hori prozesuaren hasieratik bultzatu beharko da, bereziki, Agendako proiektuak inplementatzeko orduan.

3.- Elkarbanatutako balioetatik. Gure balioak gure xedeen oinarria dira, hau da, nahi duguna lortzera bideratzen gaituztenak. Beraz, balio sendoak izatea eta elkarbanatzea beharrezkoa da gure banakako eta taldeko esfortzuak garapen jasangarrirantz bideratzeko.

4.- Gobernantza bikain baten printzipioetatik. GJHak gobernantza ireki eta bikain batekin lantzea ezinbestekoa da garapen jasangarria lortzeko. Gobernantza bikain batek zilegitasuna eta segurtasuna sortzen ditu, kooperazioan oinarritutako

ZERGATIK ERAGITEN DIGUTE GJHeK UDAL MAILAN?

GJHak Estatuen betebeharra dira, baina guztion erantzukizuna da.

Denok lagun dezakegu, bakoitzak gure alor profesionalean lan eginez eta baita konpromiso pertsonala hartuz. Izan ere, egunerokotasunean lan egitea bide bakarra da asmo handiko helburu globalak lortzeko.

Errealitate hori oso ondo azaltzen da **“PENTSATU MUNDU MAILAN, ESKU-HARTU TOKI-MAILAN”** irizpidearen bidez. Irizpide horrek, **ingurumenaren alorrari** dagokionez, esate baterako, eguneroko milioi ekintza txikik planetaren degradazioa edo kontserbazioa eragin dezakeela defendatzen du. Eta, beraz, egungo ingurumen arazo garrantzitsuen konponbidea egunerokotasunean pertsona oro eta erakunde oro gure inguruarekin arduratsuagoak izatea dela ondorioztatzen du.

Printzipio hori **gizarte alorrean** ere defendatu daiteke, egunero hartzen ditugun erabakiek eragin handia izan dezaketelako elkarkidetasunean eta kohesio-sozialean. Eta baita **alor ekonomikoan**, gure lanaren kalitatea hobetzeak tokiko komunitateen garapen ekonomikoa lagun dezakeelako eta, ondorioz, baita alor geografiko handiagoa eta, are gehiago, gutxiago garatutako herrialdeetako mundu mailako garapen ekonomikoan eragin dezake.

Horregatik, “mundu mailan” pentsatzeaz gain, beharrezkoa da baita ere “toki-mailan” pentsatzea, gure inguruko arazo eta beharrei aurre egiteko, hori bai, betiere mundu mailako erronkak kontuan hartuta. Eta, noski, **“tokian lan egin” helburuak eta proiektuak benetako eragin positiboan bihurtzeko, gure ongizate eta bizi-kalitatea hobetzeko.**



2

2030 Agendaren lehentasunen euskal Programa.
Euskadin GJHak sustatzeko ekintza koordinatu bat

2030 Agendaren lehentasunen euskal Programa Euskadin GJHak sustatzeko ekintza koordinatu bat

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak koordinatutako 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programak, 2030 Agendari dagokionez, Euskadik hartutako konpromisoaren garapen estrategikoa azaltzen du. Programak 4 lehentasun ditu:

I lehentasuna: DIBULGAZIO SOZIALA ETA HERRITARREN INPLIKAZIOA. Helburu nagusia 2030 Agendaren dibulgazioa sustatzea eta GJHek azaltzen duten eraldaketarako herritarren parte hartze mekanismoak antolatzea da.

II lehentasuna: KOORDINAZIOA ETA GOBERNANTZA KOLABORATIBOA Helburu nagusia gobernantza- eta lankidetzeta-mekanismoak eguneratzea da. Sailarteko, erakunde arteko eta gizartearen parte hartzearekin Eragile Anizkoitzeko Foro bat sortu eta egituratuko da, Agenda 2030 Guneak-eko Lankidetzeta Mahaiak eratuko dira eta estatu mailako eta nazioarteko foroetan modu aktiboan parte hartuko da.

III lehentasuna: LERROKATZEA, GARAPENA ETA EBALUAZIOA Helburu nagusia GHJak betetzeko euskal ekarpenaren lerrokatze, jarraipen eta ebaluazio mekanismoak lehentasun berrietara egokitzea da.

IV lehentasuna: TRAKZIO-KONPROMISOAK ETA PROIEKTU ADIERAZGARRIAK Helburu nagusia jardueraren aldeko fase bat garatzea da, eta horrek Euskadiko 2030 Agendaren parte-hartze “handiagoa” bultzatu behar dela esan nahi du. Trakzio-konpromiso eta proiektu adierazgarriak ezarriko dira, hainbat mailako erakundek sustatutakoak. Gutxinaka, konpromiso eta proiektu horiek Agendara gehituko dira.

2021-2024 aldirako, Euskal Gobernuak 7 proiektu adierazgarri ezarri ditu. Proiektu horiek gobernuak sustatuko ditu, baina maila anitzeko lankidetzeta eta gizartearen partaidetzeta bultzatuko dira. Era berean, beste erakunde batzuk gonbidatu ditu Euskadiko 2030 Agendara proiektu berriak gehitzera. Erakunde horien artean EUDEL-en bitartez gonbidatutako Euskal Udaletxeak daude.



3

Euskal Udalerrien ekarpena Euskadiko 2030 Agendan.
Onurak eta lan-prozesua

Udalerrien ekarpenaren onurak Agendan

Euskal Udalerriek Euskadiko 2030 Agendan parte hartzeak hainbat onura dakartza.

EUSKADIKO 2030 AGENDARAKO ONURAK

Lehenik eta behin, Agenda osoago bat eratzen da, bereziki toki-mailan azaltzen diren ekintza-lehentasunak gailentzen direlako.

Horrez gain, Euskadi eta bere Agenda nazioartean hobeto kokatzeko lagungarria da. Agenda osoago bat izanez gero, posible da **2030 Agendari eta GJHei dagokienez, konpromiso eraginkorrako bat lortzea, lankidetzaren printzipioa indartuz eta maila anitzeko agenda eratuz.**

UDALERRIETARAKO ONURAK

Agendan parte hartzeak **TOKIKO EKINTZAK ETA INDARRA BISTARATZEA** errazten du, Euskal Udalerrien gaitasuna eta ekimena baliatuz. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean adierazten den moduan...


Garapen jasangarriaren konpromisoarekin jada ibilbide luzea jorratu duten udalerriek buruz hitz egiten ari gara kasu askotan, 21 Agendaren moduko ekintzen bidez. Ekimen honi esker, 2030 Agendarekin eta GJHekin duten konpromisoa indartu daiteke, aldi berean, banakako eta gizartearen konpromisoaren buru izanez.

Gainera, Agenda udalerriak **PROIEKTU ERALDATZAILEETARA** gehitzeko aukera ona da. Proiektu horiek, kasu batzuetan, zuzenean eragiten dute garapen jasangarrian eta pertsonen bizi-kalitatean, eta beste batzuetan, aldiz, gaitasun berriak garatzeko aukera dira, gerora tokiko gobernantzan baliatu daitezkeen gaitasunak.

Azkenik, proiektu horiei esker, **sareen balioa** gailentzen jarraitu daiteke. Sareetan batez ere udalerriek parte hartzen dute, baina baita beste erakunde eta eragile batzuk. Sare horiek esperientzia truke eta ikaskuntza kolaboratiboaren bidez lan egiteko forma berriak garatzeko iturri izugarria dira.

Garatutako lan-prozesua

Euskal udalerriek Euskadiko 2030 Agendan ekarpenak egiteko lana 3 alorretan edo lankidetza maila osagarritan garatu da:




EUDELen eta Euskal Gobernuaren arteko lankidetzari dagokionez -Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren bidez-, behin ekimen honetan elkarlanean aritzea adostu ondoren, zeregin hori ahalik eta modurik egokienean burutzeko lan egin da, kolaborazio maila bikoitza ezarriz: alde batetik, **EUDELen partaidetza** Agendaren organoetan eta maila anitzeko gobernantza espazioetan; eta, beste alde batetik, Agendan gehitu beharreko **tokiko sustapenerako hainbat proiektu** zehaztea.

EUDEL barruan, **Batzorde Nagusiko** alkateak proiektuen identifikazio lanaren arduradunak izan dira, proiektuek bete beharreko irizpideak ezarriz eta hainbat aukera lehenetsiz. Horretarako, Batzorde Nagusiaren barruan, 2030 Agendaren talde eragile bat edo **Lidergo Batzorde** bat eratu dira.

Azkenik, euskal **udal sareak** funtsezkoak izan dira proiektuak identifikatzeko orduan. Proiektu berriak lankidetzaren bidez sortuz edota jada zeuden proiektuei baliozko elementuak gehituz.

Prozesuari dagokionez, **2021eko apirilaren eta irailaren artean** garatu da, 4 fase nagusitan:



UDAL SAREAK


Berdinsarea
Basqueskola
Euskal Fondoa
Mugiment
Berrituz
Euskadi Lagunkoia
Garapen
Udalsarea

4

Euskadiko 2030 Agendaren tokiko
sustapen proiektuen printzipio komunak

Euskadiko 2030 Agendaren tokiko sustapen proiektuen printzipio komunak

Hautatako tokiko sustapenerako 15 proiektuek hainbat printzipio berdin dituzte eta horiek identifikatzeko eta lehenesteko, haien jarraipena egin da lan-prozesuaren hasieratik:



5

2021-2024 aldirako tokiko sustapen
proiektuen ikuspegi orokorra

2021-2024 aldirako tokiko sustapen proiektuen IKUSPEGI OROKORRA

15 proiektuak **4 helburu nagusitan** banatu daitezke

GIZARTE GARAPENA

Pertsonak
erdigunean

- 1.- Ikuspegi feminista duen tokiko zaintza-erantzunkidetasun eredua
- 2.- Berdintasunaren aldeko Tokiko Gizonezko Hautetsien Sarea
- 3.- Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimen laguntza eta arretarako tokiko koordinazio protokoloen egunerapena
- 4.- Basqueskola sarea indartzea tokiko politikan emakumeen partaidetza bultzatzeko
- 5.- Uraren eta saneamenduaren erakundeen arteko lankidetzaren programa Euskadi eta Erdialdeko Amerikaren artean
- 6.- Bizileku bazterketa egoera txarrean dauden pertsona kopuruaren zenbaketa eta diagnostikoa
- 7.- Euskadi Lagunkoia, adinekoentzat lagunkoiak diren udalerrak
- 8.- Mugimint. Pertsona aktiboak
- 9.- A8: enplegarritasuna hobetzeko ibilbide integralak

9 proiektu

GARAPEN EKONOMIKOA

Lehiakortasun
jasangarri
eredu baterantz

- 10.- Zaindu/InguruarEKIN, ekintzailtza jasangarriaren sustapena
- 11.- Trantsizio digitalaren bulego-sarea

2 proiektu

JASANGARRITASUNA

Erantzun sendoa
klima larrialdiaren
aurrean

- 12.- Tokiko klima ekintza 2030 Udalsarea aintzat hartuz. Klima eta energiaren udaletxeen ituna
- 13.- Ekonomia zirkularra eta lehiakortasunaren sustapena toki-mailan

2 proiektu

GOBERNANTZA

Udal kudeaketa
bikaina
sakontzea

- 14.- 2030 Agendara eta GIHetara bideratutako tokiko gobernantza: toki ekintza eta jasangarritasun politiken ebaluazioa
- 15.- ELoGE, gobernantza bikaintasunerako zigilua

2 proiektu

Ondoren, **proiektuen ezaugarri nagusiak** adierazten dituen taula bat azalduko da:

Proiektuaren izena	Sare sustatzailea	Gaia(k)	Helburu nagusiak
1.- Ikuspegi feminista duen tokiko zaintza-erantzunkidetasun eredua	Berdinsarea	ZAINTZA BERDINTASUNA	- Ikuspegi feminista duen zaintza-erantzunkidetasun eredu bat diseinatzea - Eredu hori toki-mailan ezartzea laguntza-prozesuen bidez eta Berdinsarea sustatuz
2.- Tokiko berdintasun gizonezko hautetsien sarea	Berdinsarea	BERDINTASUNA	- Sarea sortu eta martxan jartzea, tokiko hautetsiak trebatzeko garrantzitsua izango den sarea - Toki- eta eskualde-mailan berdintasunaren aldeko gizonezkoen taldeak osatzea, udalerrietan aldaketa-prozesuak bultzatzeko
3.- Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimen laguntza eta arretarako tokiko koordinazio protokoloen egunerapena	Berdinsarea	BERDINTASUNA	- Tokiko eta eskualdeko Protokoloak eguneratzeko erreferentzia diren protokolo ereduak ezartzea - Tokiko eta eskualdeko koordinazio protokoloak berritze eta eguneratzea sustatzea
4.- Basqueskola sarea indartzea tokiko politikan emakumeen partaidetza bultzatzeko	Berdinsarea	BERDINTASUNA	- VWBasqueskola eta Basqueskola Sarea proiektua finkatzea - Sarearen balio-lantresna berriak martxan jartzea
5.- Uraren eta saneamenduaren erakundeen arteko lankidetzaren programa Euskadi eta Erdialdeko Amerikaren artean	Euskal Fundazioa	GARAPENERAKO LANKIDETZA INGURUMEN JASANGARRITASUNA	- Ur Garbia eta Saneamendua GJHa betetzeko elkarlanean aritzea - Amerika Erdialdeko (8 herrialde) tokiko eragileen gaitasunak garatzea
6.- Bizileku bazterketa egoera txarrean dauden pertsona kopuruaren zenbaketa eta diagnostikoa	Berrituz	INKLUSIOA	- Proiektuaren jardura gakoak finkatzea: zenbaketak eta jardunaldiak bi urterik behin - Proiektura zenbait elementu berri gehitzea, arazoei buruz hitz egiteko hausnarketa eta topaketa jarduerak antolatuz eta sarea handituz
7.- Euskadi Lagunkoia, adinekoentzat lagunkoia diren udalerriak	Euskadi Lagunkoia	NAGUSIAK	- Proiektua bereziki landa-gunera hedatzea - Sare-lana sustatzea - Enpresa pribatuak adineko pertsonen beharrezanez gehiago jabetzea lortzea
8.- Mugimint. Pertsona aktiboak	Mugimint	JARDUERA FISIKOA	- Jardura fisikora bideratutako zerbitzuen erabiltzaile kopurua handitzea - Proiektua umeen alorrera hedatzea, prebentzioa indartuz - Kirol abonua-sistema duten udalerrien kirol-instalazioak 100% eskuragarri jartzea udalerrien artean.

Proiektuaren izena	Sare sustatzailea	Gaia(k)	Helburu nagusiak
9.- A8: enplegugarritasuna hobetzeko ibilbide integralak	Garapen	ENPLEGUA	- Enplegua lortzeko eredu integrala osatzea - Enplegurako gaitasun profesional eta pertsonalak garatzea
10.- Zaindu/ InguruarEKIN, ekintzailatza jasangarriaren sustapena	Garapen	EKINTZAILATZA	- Enpresa jasangarriak eta eragileak sortzea sustatzea - Enpresa-eredu berri bat ezagutzera ematea, gizartearentzat onuragarria izateaz gain, lehiakorra izateko jasangarritasunaren alde egitea defendatzen duena
11.- Trantsizio digitalaren bulego-sarea	Garapen	ENPRESA GARAPENA DIGITALIZAZIOA	ETEn digitalizazioa sustatzea, bereziki hiriko ekonomiarekin lotura duten sektoreen kasuan (merkataritza, turismoa eta pertsonentzako zerbitzuak)
12.- Tokiko klima ekintza 2030 Udalsarea aintzat hartuz. Klima eta energiaren udaletxeen ituna	Udalsarea	INGURUMEN JASANGARRITASUNA ENERGIA	- Itunaren parte diren udalerrien kopurua handitzea - Klima eta Energia Plan Lokalak abiaraztea eta hedatzea udalerrri eta eskualde mailan - Klima-ekintza proiektuak martxan jartzea zenbait laguntza-deialdiren bidez
13.- Ekonomia zirkularra eta leihakortasunaren sustapena toki-mailan	Udalsarea	INGURUMEN JASANGARRITASUNA ENPRESA GARAPENA	- Ekonomia zirkularri buruzko ibilbide-orriak eskura izatea euskal udalerrietan - Ekonomia zirkularra sustatzeko lan tresnak erabiltzea tokiko gobernantzan - ETE mailako enpresa- eta industria-sarean ekonomia zirkularra sustatzeko lankidetzak eta laguntza bultzatzea
14.- 2030 Agendara eta GIHetara bideratutako tokiko gobernantza: toki ekintza eta jasangarritasun politiken ebaluazioa	Udalsarea	GOBERNANTZA	- Udaletxeek Tokiko 2030 Agendaren jarraibideak kontuan hartzea - Euskadiren Tokiko Jasangarritasunaren Garapenaren Behatokia eta e-mugi lantresna hobetzea - Tokiko 2030 Agenden bidez egindako aurrera pausoak hobeto ezagutzera ematea gizartearen
15.- ELoGE, gobernantza bikaintasunerako zigilua	EUDEL	GOBERNANTZA	- Proiektua indartzea, gutxika udalerrri berriak gehituz - Proiektua ezagutzera ematea bultzatzea eta tokiko gobernantza egokiaren garrantzia estrategikoa sustatzea - Proiektuan baliozko hainbat elementu gehitzea, kudeaketa bikaina lortzeko jarduerak ezartzea errazteko

2030 Agendaren lehentasunen euskal programarekin bat etortzeko hasierako proposamena

Toki-sustapeneko proiektuak Euskadiko 2030 Agendan integratzea errazteko, lehentasunen euskal programaren **ardatz eta konpromisoekin** bat etortzeko hasierako proposamena egiten da jarraian. Era berean, sinergia posibleak planteatzen dira Eusko Jaurlaritzak Agendaren 2021-2024 Ekintza Planaren barruan ezarri dituen **7 proiektu** enblematikoeekin. Beheko taulan modu eskematikoan erakusten da integrazio hori:

Proiektuaren izena	Bat-etortze estrategikoa (*)	Eusko Jaurlaritzak bultzatutako proiektu enblematikoeikiko harremana
1.- Zaintza erantzunkideen tokiko eredia, ikuspegi feministarekin	Genero BERDINTASUNAREN zeharkako ardatzari erantzuten dio. 1. ardatzarekin (PERTSONAK) ere badu zerikusia. EKITATEA	Ekitatea proiektua
2.- Berdintasunaren aldeko Tokiko Hautetsien Sarea	Genero BERDINTASUNAREN zeharkako ardatzari erantzuten dio	
3.- Indarkeria matxistaren biktimei arreta integrala eta erreparazioa emateko tokiko koordinazio-protokoloak eguneratzea	Genero BERDINTASUNAREN zeharkako ardatzari erantzuten dio	
4.- Basqueskola Sarea indartzea, emakumeek tokiko politikan eragina izan dezaten eta parte har dezaten	Genero BERDINTASUNAREN zeharkako ardatzari erantzuten dio	
5.- Euskadi-Erdialdeko Amerika uraren eta saneamenduaren arloko lankidetzarako erakunde arteko programa	3. ardatzari (PROSPERITATEA) erantzuten dio. SOLIDARITATEA honako trakzio-konpromisoaren baitan: "Osasun publikoa partekatzea, pertsona guztiengana iristen den ondasun komun, lokal eta global gisa"	Osasun Globalaren proiektua
6.- Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen zenbaketa eta diagnostikoa	1. ardatzari (PERTSONAK) erantzuten dio. EKITATEA honako trakzio-konpromisoaren baitan: "Pobrezia eta gosea desagerraraztea, desberdintasunak murriztea eta bazterkeria prebenitzea"	Ekitatea proiektua
7.- Euskadi Lagunkoia, adineko pertsonekiko lagunkoiak diren udalerriak	1. ardatzari (PERTSONAK) erantzuten dio. EKITATEA honako trakzio-konpromisoaren baitan: "Pobrezia eta gosea desagerraraztea, desberdintasunak murriztea eta bazterkeria prebenitzea"	Ekitatea proiektua
8.- Mugiment. Pertsona aktiboak	3. ardatzari (PROSPERITATEA) erantzuten dio. SOLIDARITATEA honako trakzio-konpromisoaren baitan: "Osasun publikoa partekatzea, pertsona guztiengana iristen den ondasun komun, lokal eta global gisa"	Osasun Globalaren proiektua
9.- A8: Enplegarritasuna hobetzeko ibilbide integralak	1. ardatzari (PERTSONAK) erantzuten dio. EKITATEA honako trakzio-konpromisoaren baitan: "Pobrezia eta gosea desagerraraztea, desberdintasunak murriztea eta bazterkeria prebenitzea"	Ekitatea eta Hezkuntzaren auzolana proiektuak

Proiektuaren izena	Bat-etortze estrategikoa (*)	Eusko Jaurlaritzak bultzatutako proiektu enblematikoen harremana
10.- Zaindu/InguruarEkin, ekintzailetza jasangarria sustatzea	3. ardatzari (PROSPERITATEA) erantzuten dio. SOLIDARITATEA honako traxzio-konpromisoaren baitan: "Osasun publikoa partekatzea, pertsona guztiengana iristen den ondasun komun, lokal eta global gisa"	
11.- Trantsizio Digitaleko Bulegoen Sarea	3. ardatzari (PROSPERITATEA) erantzuten dio. SOLIDARITATEA honako traxzio-konpromisoaren baitan: "Osasun publikoa partekatzea, pertsona guztiengana iristen den ondasun komun, lokal eta global gisa"	
12.- Tokiko Ekintza Klimatikoa Udalsarea 2030en esparruan. Klima eta Energiarako Alkatetzen Ituna	2. ardatzari (PLANETA) erantzuten dio. EKOLOGIA honako traxzio-konpromisoaren baitan: "klima-aldaketa, deskarbonizazioa eta energia berriztagarriak geldiaraztea"	
13.- Ekonomia zirkularra eta lehiakortasuna tokiko esparrutik bultzatzea	3. ardatzari (PROSPERITATEA) erantzuten dio. SOLIDARITATEA honako traxzio-konpromisoaren baitan: "Osasun publikoa partekatzea, pertsona guztiengana iristen den ondasun komun, lokal eta global gisa"	Basque Ecodesign Center proiektua
14.- 2030 Agendara eta GJHetara bideratutako tokiko gobernantza: iraunkortasun-politiken eta tokiko ekintzaren ebaluazioa	2. ardatzari (PLANETA) erantzuten dio. EKOLOGIA honako traxzio-konpromisoaren baitan: "klima-aldaketa, deskarbonizazioa eta energia berriztagarriak geldiaraztea" eta "Ekosistema berde eta inklusiboko hiria, mugikortasuna eta hirigintza sustatzea". Gainera, politika publikoak lerrokatzeko eta ebaluatzeko zeharkako erronkari erantzuten dio.	
15.- ELoGE, bikaintasunaren zigilua tokiko gobernantzan	Politika publikoak lerrokatzeko eta ebaluatzeko zeharkako erronkari erantzuten dio.	

(*) Horrez gain, 15 proiektuak bat datoz lehentasunezko euskal programak ezartzen duen **"ALIANZA" kontzeptuarekin**: "2030 Agendaren inplementazioak hura garatzeko beharrezkoak diren bitartekoak mobilizatu behar ditu, eragile anitzeko aliantza-filosofia baten bidez. Lankidetzeta eta elkarrekintza zuzendaritza guztietan eta proiektu guztietan bilatzea eta islatu behar dira, Auzolana".

6

Gobernantza eredua

Gobernantza eredua

EREDUAK KONTUAN HARTU BEHAR DITUEN EREMUAK

Gobernantza Eredua izatea ezinbestekoa da **Euskadiko 2030 Agendako udal ekarpenean kontzeptu diseineutik burutze eraginkorrerako pausua ematen dela bermatzeko**. Horretarako, beharrezkoa izango da bi mailatan lan egitea (gobernantza espazioak):

- **Maila politiko-instituzionalean**, 2030 Agendako Buruzagitza Batzordea mantenduko da udal ekarpenaren monitorizaziorako espazio bizi gisa, EUDElen Zuzendaritza Batzordearekin komunikatzeko eta Eragile Anitzeko Foroaren udal ordezkaritzarako.
- **Maila operatiboan**, tokiko sustapenaren 15 proiektuen erakunde arduradunekin lan egiteko eta koordinatzeko espazio bat sortuko da. Modu horretan, proiektuen eragina ahalik eta handiena izatea bermatuko da.

EREDUAREN ERABILGARRITASUNA. LORTU BEHARREKO HELBURUAK

Gobernantza Eredua ondorengo helburuak bete behar ditu:

- **Proiektuen jarraipen sistema** bat ezarri eta burutu, horri esker, helburuak betetzea ekidin dezaketen arriskuak azkar hauteman eta beharrezkoak diren neurriak hartzeko. Horretarako, kanpoko laguntzat jasoko da, bai EUDElen eskutik eta baita Lehendakaritzako Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritzaren eskutik.
- **Proiektuetan udaletxeen parte hartze maila ezagutu**, bereziki udaletxe txikien parte hartze maila. Ezagutza hori ezinbestekotzat jotzen da, beharrezkoa izanez gero, haien parte hartzea sustatzeko ekintzak antolatu daitezzen (bai sustapen orokor bat, edota baita hainbat udaletxeri zuzendutako sustapena, maila geografikoaren arabera, maila ekonomiko edo sozialean lurraldearen ezaugarrien arabera...).
- Proiektuen arteko **sinergiak** identifikatu eta baliatu Agendaren eragina ahalik eta handiena izateko.

GOBERNANTZA DINAMIKAK ETA TRESNAK

Ondorengo gobernantza dinamikak eta tresnak erabiliko dira:

- Proiektuen garapenari buruzko aldizkako informazioa sortu, proiektuen sare arduradunekin harremanetan egonez.
- Tokiko 15 sustapen proiektuen erakunde arduradunek osatutako lantalde saioak antolatu, proiektuen aurrerapena eta haien arteko sinergiak balioztatzeko, eta sinergia eta lankidetzak aukera berriak identifikatzeko.
- Proiektuen garapenari buruzko urteko informazio zehatza sortu. Informazio hori oinarritzakoa izango da proiektuen aurrerapenaren memoria publikoa egiteko orduan.

1 Proiektua - Ikuspegi feminista duen tokiko zaintza-erantzunkidetasun eredua

Proiektuaren definizioa	Berdinsarea, Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Euskal Udaletxe Sarea, 2006an sortu zen EUDELen eta Emakunderen laguntzarekin. Horren helburua euskal udaletxeen alor horri dagokion konpromisoa hartzea zen. Estatu eta Europa mailan sare hori nabarmentzen duen ezaugarria Udaletxeen ardura izatea da. Horrez gain, partaidetza eta bat-etortzea defendatzen dira, bai politikan eta baita esparru-teknikoan, udalerrietan eta gizartearen “balio handiko sarea” da eta Udaletxeak hasiera batetik berdintasunaren erronkari aurre egiteko ezinbestekoak izan dira, gizarte eraldaketaren agertokiak direlako. Euskadiko Giza Garapenaren Indizea altua den arren eta gizarte inklusibo baten aldeko eredua defendatzen duen arren (erakundeak garrantzia handia duten gizarte babes-sistema aurreratu bat dago), gaur egun Euskadin indarrean dagoen gizarte zaintza-ereduak batez ere familiei eragiten die, bereziki emakumeei. Izan ere, haiek dira adingabeak, mendekotasuna duten pertsonak eta nagusiak zaintzen dituztenak. Ondorioz, erantzukizunak ez dira modu zuzenean banatzen. Alor publikoak biztanleriaren beharrezanez erantzuteko eta pertsonen autonomia bermatzeko duen interbentzio gaitasun txikia nabarmendu da. Ondorioz, baldintza prekarioak dituen eta gutxietsita dagoen zaintza-zerbitzu merkatu paralelo bat sortu da. Bertan, diskriminazio intersektionala nabarmena da, emakume pobre eta etorkinez osatutako sektorea da. Errealitate horrek txarrera egin du COVID-19ak eragindako pandemia dela eta, zaintza-sistema nabarmen okertu baita, horren prekaritatea eta ahuleziak erakutsiz eta eredu berri bat sortzeko premia ezagutzera emanez. Proiektu honi esker, tokiko zaintza-eredu bat ezarri nahi da, horretarako, zerbitzu publikoekin eta sare komunitarioekin bat eginez, zaintza-sisteman lanean ari diren eragileekin harremanetan jarritz eta erantzunkidetasun sozialaren eta arreta-zerbitzuen kalitatearen eta jasangarritasunaren printzipioak aintzat hartuz. Azkenik, emakumeengan duen eragina ebaluatu behar da ikuspegi intersektional batekin (emakume etorkinak, gurasobakarreko familien buruak...).
Helburuak	▪ Ikuspegi feminista duten zaintza eredu erantzunkidea eratzea eta tokiko zaintza-sareak sortzeko ibilbide-orri bat sortzea. ▪ Eredua ezarri ondoren lortutako emaitzak, bereziki landaguneko udalerri txikiak eta adineko pertsona nagusi gehiago dituztenak aintzat hartuz.
Irizpideak	▪ Eredua horrek hainbat gaitasun baliatu beharko ditu (alor publikoak gaur egun ematen dituen zerbitzuak, laguntza sistema komunitarioak...), hausnarketa kritiko bat eginez, genero-desberdintasunak areagotzen ez dituen tokiko eredu bat lortzeko eta lan hori balioesteko. ▪ Eredua hori toki-mailan ezartzea laguntza-prozesuen bidez eta Berdinsarea sustatuz.
Egutegia	2021- Zaintza alorrarekin lotutako tokiko ekimenak identifikatzea, Jardunbide Egokiak erreferentzia gisa izanik. Eredua eta ikuspegi analisia 2022: Ereduen aurretiko definizioa. 2023-2024: Ereduen inplementazioaren ondorengo lehen esperientziak, eta hori berrikusi eta sakondu. Tokiko zaintza eredu aurkezteko eta udal jardunbide egokien truke tailerrak burutzeko jardunaldiak antolatzea. Jardunbide egokien gidaliburuaren argitaratzea, Ikuspegi Feminista duen Tokiko Zaintza Kudeaketa Eredua ezartzeko.
Sare arduraduna	Berdinsarea

2 Proiektua - Berdintasunaren aldeko Tokiko Gizonezko Hautetsien Sarea

Proiektuaren definizioa	2017tik EUDLEk, Emakunderen GIZONDUZ programarekin elkarlanean arituz, gizonezkoek, bereziki alkateek eta zinegotziek, berdintasun-politikak sustatzeko orduan duten garrantzia azpimarratu du. Horri esker, alor horretan trebakuntza jasotzen duten alkateen Talde Motorea eratu da. Horrez gain, gizonezkoak berdintasuna sustatzen jarraitzeko hausnarketa ere egin da. Berdintasunaren aldeko tokiko Hautatuen Sarea sortu eta dinamizatzea. Horri esker, helburua politikariek haien udalerrietan berdintasunaren alde lan egitea da. Ordezkarri publiko gisa, trebatu, hausnartu eta berdintasunaren aldeko jarduerak sustatzean datza, horretarako, Berdintasunaren aldeko tokiko agendak bultzatuz eta erreferenteak izanez, ohiko estereotipoak zalantzan jarritz eta gai honetan haien konpromisoa argi erakutsiz.
Helburuak	▪ Sarea sortu eta martxan jartzea, hainbat lurraldetako errealitateetako hautetsien partaidetzarekin. ▪ Hautetsi kopuru esanguratsu bat parte hartzera bultzatzea. Hautetsi horiek emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasun eraginkorra lortzeko tokiko prozesu eta proiektuak gidatzeko sentsibilizazioa eta gaitasuna izan behar dute. ▪ Toki- eta eskualde-mailan, gizonezkoen ekintza-talde kopuru esanguratsu bat lortzea, haien udalerrietako aldaketa sustatu dezaten.
Irizpideak	▪ Alkateen Talde Eragilea baliatuz, elkarbanatutako estrategiak diseinatzea tokiko politikariak berdintasun alorrean parte hartzera bultzatzeko. ▪ Talde Eragile hori Berdintasunaren aldeko Tokiko Hautetsien Sare batean bihurtu, modu horretan, hautetsien (alkateak eta zinegotziak) konpromisoa ezagutzera emateko eta konpromiso hori haien udalerrietan ekintza zehatzetan bihurtzeko, betiere Sarearen laguntza eta sinergiak baliatuz. ▪ Tokiko hautetsiei zuzendutako berdintasunari buruzko prestakuntza- eta hausnarketa-programa bat diseinatzea eta abiaraztea. Programa horrek oinarritzko prestakuntza eta hautetsiek haien udalerrietan berdintasunaren aldeko apustua egiteko beharrezkoak diren gaitasunak garatzeko ekintzak eskaini beharko ditu. ▪ Saretik bultzatu toki- eta eskualde-mailan berdintasunaren aldeko gizonezkoen ekintza-taldeak sortzea, hautetsien partaidetza aktiboarekin
Egutegia	2022: Sarearen kontzeptu diseinua eta proiektuarekin konpromisoa hartzen duten hautetsien lehen taldea aukeratzea. Lehenbiziko prestakuntza jarduerak antolatzea. Tokiko/eskualdeko prestakuntza/hausnarketa taldeak gidatzea. 2023: Sarea zabaltzea eta prestakuntza jarduera berriak antolatzea, korporazio berrien konfigurazioa baliatuz. Tokiko talde berriak aktibatzea. 2024: Toki- eta eskualde-mailan ekintza-taldeak abiaraztea.
Sare arduraduna	Berdinsarea

3 Proiektua - Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimen laguntza eta arretarako tokiko koordinazio protokoloen egunerapena

Proiektuaren definizioa	Berdintasunaren Aldeko eta Emakumeen Aurrakako Indarkeriaren Udalerrien Sarea martxa jarri zenetik , emakumeen aurkako borroka oinarritzko lan-esparrua izan da, toki-mailan indarkeria egoeren aurrean dagoen erantzuna landuz eta biktimei arreta osoa emateko erakundeekin dagoen koordinazioa hobetuz. Toki-mailatik elkarbizitza parekidea defendatu eta emakumeen aurkako indarkeria baztertu, haiei ezarritako kontrola eta mendeotasuna ekidinez. 2006An Berdinsareak eredu bat eskaini zien udaletxeei, tokiko protokoloen eta neurrien gidaliburu bat diseinatu zen indarkeria pairatzen zuten emakumeen arreta hobetzeko, emakumeen aurkako indarkeriaren biktima ziren Erakundeen Arteko Akordioak ezartzen zuena kontuan hartuz. Ordutik, udalerriek koordinazio-protokoloak ezarri dituzte hori kontuan hartuz, izan ere, ezinbesteko lantresna da EAEko udaletxe gehienetan. Indarkeriaren biktimen tokiko lehen protokoloak sortu zirenetik, araudia eta erakundeak asko hobetu dira alor honi dagokionez. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitu eta borrokatzeko europar Hitzarmena (Estambuleko Hitzarmena) oso garrantzitsua izan zen araudiari dagokionez. Horrez gain, kontuan hartu behar da baita ere 4/2005eko Berdintasun Legean egindako aldaketa, 7. kapituluaren araudi eta beste mota batzuetako aldaketetara moldatzeko aldaketak zehazten dira. Hori guztia kontuan hartuta, beharrezkoa da protokoloak eguneratzea, eguneraketa hori ikuspegi kolaboratibo bat aintzat hartuz eginez, protokolo horiek tokian tokiko beharrazanei erantzuna emateaz gain, sinergiak baliatzeko gai izan daitezen.
Helburuak	▪ Udalerriak emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean erantzun egoki eta integrala emateko gai izatea. ▪ Alor honetan udaletxeek burututako ekintzak balioztatzea. ▪ Tokiko koordinazio protokoloak berrikusi eta eguneratzea, eta eskualdeko koordinazio protokoloak eguneratzea, 5000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan eman beharreko erantzuna ezartzeko.
Irizpideak	▪ Prebentzio-eta arreta- dokumentuak garatzea, emakumeen aurkako indarkeriaren ikuspegia kontuan hartuz. ▪ Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen prebentzioa, arreta eta laguntza hobetzeko Erakundeen Arteko III Hitzarmena zehazteko orduan, erakundeen arteko koordinazioan parte hartzea- ▪ Tokiko eta eskualdeko Protokoloak eguneratzeko erreferentzia diren protokolo ereduak ezartzea. ▪ Erreferentzia markoen (Legearen Moldaketa, Hitzarmena...) berri emateko trebakuntza/informazioa jardunaldiak edo mintegiak antolatzea eta udalerrien arteko elkarlana sustatzeko espazioak eratzea. ▪ Toki eta eskualdeko koordinazio protokoloak berritu eta eguneratzea bultzatzea, eskualde mailan ere ekintzak antolatuz.
Egutegia	2022: Nazioarteko III hitzarmenaren erreferentzia eta esparru legalaren aldaketei buruzko azterketa-alderaketa gauzatzea. Arretarako tokiko koordinazio protokoloen eta tokiko protokolo sektorialen egoeraren diagnostikoa egitea (gizarte zerbitzuak, berdintasun zerbitzuak, polizia arreta). 2023: Arreta osoko tokiko protokoloak eguneratzeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntzeko erreferentzia ereduak ezartzea. EAEko udalerrien esperientzia pilotuak. 2024: Erreferentzia Eredua argitaratzea. Arreta Osoko Tokiko Protokoloak eta Emakumeen Aurkako Biktimen Laguntza eguneratzeko prozesuak martxan jartzea.
Sare arduraduna	Berdinsarea

4 Proiektua - Basqueskola sarea indartzea tokiko politikan emakumeen partaidetza bultzatzeko

Proiektuaren definizioa	2012an Virginia Woolf Basqueskola abiarazi zen. Horren helburua emakumeei zuzendutako politika esparruko ahalduntze espazio bat izatea zen. Trebakuntza-proiektua zen, emakume hautatuen gaitasunak indartzeko xedea zuena, Horrez gain, teoria feminista eta emakumeen agenda politikoa haien presentzia tokiko politikan indartzeko abiapuntua izan ziren. 2017an proiektuan aurrera pauso bat eman zen, VWBasqueskola proiektuaren sare sortu zenean, alkate eta zinegotzi emakume talde motore bati esker: Basqueskola Sarea. Basqueskola Sarearen egitura hainbat trebakuntza programarekin osatzen zen, taldean analisiak egiteko espazioak sortzen dituztenak, emakume hautatuek haien esperientziak elkarbanatu eta izandako oztopoak identifikatzeko, eta, ondorioz, hobekuntza proposamenak eratzeko. Modu horretan, denbora eta politikarekin, emakume hautatu berrien laguntzarekin eta emakume politikarien garrantziarekin lotutako lantaldeak osatu ziren. Horrez gain, aukera politiko guztiek ordezkartza duten egitura parte-hartzaile bat eratu zen, Basqueskolaren estrategia adosteko. Udaleko agintaldi berri bakoitzean Basqueskola Sarearen egitura berritzen da eta sarearen ekintza-aro berri bat diseinatzen da. Sare horretan EAEko 1200 alkate eta zinegotzi emakume guztiak koordinatu nahi dira hainbat programa, ekimen eta lankidetzak espazioaren bidez. Basqueskolaren helburuetako bat emakumeen tokiko politikan bizi duten egoera ezagutzera emateko espazioa izatea da, eta emakumeak udalerrietako politikan parte hartzea bultzatzea eta Basqueskolako lantaldeetan elkarbanatutako informazioa ezagutzera ematea. Basqueskola Sareak biztanleriarekin harremanetan egon nahi du, lidergo ereduak eskainiz, tokiko politikan parte hartu nahi duten emakumeentzat erreferente izateko. Basqueskola Sarearen aro berri honetan, orain arte egindako lana finkatzeaz gain, errealitate berri hau aldatzeko lantresna berriak gehitu nahi dira, emakumeen partaidetza politikan eskuragarriagoa eta eraginkorragoa izan dadin.
Helburuak	▪ VWBasqueskola eta Basqueskola Sarea proiektua finkatzea. ▪ 2019-2023 eta 2023-2027 agintaldietako emakume ordezkari gehienek parte hartu ahal duten trebakuntza-jarduerak antolatzea. ▪ Sarearen balio-lantresna berriak martxan jartzea.
Irizpideak	▪ Laguntza-, mentoring- eta ikaskuntza-programak, trebakuntza-programetan landutakoa osatzeko lantresnak aktibatu beharko dira. ▪ Emakumeen partaidetza politikoaren Behatokia, profilak, politikan dituzten baldintza ezberdinak eta politikan emakumeen aurkako indarkeriak duen garrantzia identifikatzeko martxan jarri beharko da. ▪ "Alkate emakume aitzindariak" izena duen erakusketa ibiltaria, emakumeak politikan parte hartzera animatzeko, ezarriko da.
Egutegia	2022: komunikazio eta funtzionamendu tresnak eguneratzea sarean. Tokiko alorrean emakumeen partaidetza politikoa aztertzeo Behatokia diseinatzea. 2023-2027rako Basqueskola Sarearen estrategia zehaztea. 2023: Tokiko hautetsi berrien Harrera Jardunaldiak antolatzea. Basqueskola WEBgunea eta Sarearen funtzionamendua hobetzeko beste tresna birtual batzuk aurkeztea eta abiaraztea. Emakumeen Partaidetza Politikoaren Behatokia aurkeztea. 1. ikerketa eta analisisa egitea 2023ko udal hauteskundeetan emakumeen ordezkartza politikoa aztertzeo. Hautetsi berriei zuzendutako Laguntza eta Mentoring programak garatu eta abiaraztea. 2024: Berdintasun-agenda sustatzeko tokiko aliantza-estrategia martxan jartzea. Batzorde parte-hartzaileen jarduera abiaraztea. Tokiko hautetsiei zuzendutako prestakuntza jarduerak eta jardunaldiak antolatzea, bai hasierakoak eta bai aurreratuak, lidergo, feminismo, eragin eta komunikazio alorrak lantzeko.
Sare arduraduna	Berdinsarea

5 Proiektua - Uraren eta saneamenduaren erakundearen arteko lankidetzaren programa Euskadi eta Erdialdeko Amerikaren artean

Proiektuaren definizioa	2018-2021ean zehar, Garapenerako Lankidetzaren Erakundearen arteko Batzordearen parte diren euskal erakunde publikoek sustatu eta koordinatutako proiektu bat garatu zen. Horren helburua Amerika Erdialdeko uraren eta saneamenduaren 2 estatu-erakunderen (ANDA, Administración Nacional de Acueductos y Alcantarillados, El Salvador-en eta Insittuto Costarricense de Acueductos y Alcantarillados, Costa Rica-n) kudeaketa tekniko, operatibo eta administratibo-finantzarioa indartu eta garatzea zen. Horrez gain, ura izateko giza-eskubide bermatu nahi zen eta La Unión eskualdean kokatutako Anamorós eta Yucuaiquín udalerrietako saneamendua ezarri. Hori guztia, ikuspegi jasangarria eta genero-berdintasuna kontuan hartuz. Proiektu hori Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren, URA Ur Euskal Agentziaren, Euskal Fondoaren parte diren erakunde publikoen eta udaletxeen eta ur enpresa publikoen (Gasteizko Udal Urak, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa, Gipuzkoako Ur Konsortzioa) laguntzarekin burutu zen. Proiektu horren kostua guztira 1.851.769 € izan ziren. Lehen Programa horren arrakasta nabarmena da, izan ere, Amerika Erdialdeko hainbat erakundek kooperazio teknikoaren alorrean parte hartzeko interesa erakutsi dute. Zentzu horretan, Amerika Erdialdeko eta Dominikar Errrepublikako Edateko Uraren eta Saneamenduaren Foroa (Foro Centroamericano y República Dominicana de Agua Potable y Saneamiento, FOCARD-APS), Amerika Erdialdeko Integrazio Sistemaren plataforma teknikoa (Sistema de la Integración Centroamericana, SICA), komunikazio ofizial baten bidez, Programan ordezkartza duten Euskadiko erakundeekin kooperazio eta kolaborazio tekniko hitzarmen bat adostearen alde azaldu da. Garapenerako lankidetzaren proiektu horrek bigarren fase bat abiarazi nahi du. Fase horretan, komunitate zaurgarri batean zuzenean lan egiteko (kasu honetan, El Salvador-eko Jocoro udalerrian) eta Amerika Erdialdeko herrialdeen gaitasunen garapen eskema mistoa mantenduko da. Helburua betiere edateko ura eta saneamendu sistema (GJH) eskualdeko beste udalerririk batzuetara hedatzea izango da. Kasu honetan, gaitasunen garapena ez da bakarrik 2 herrialdetan (El Salvador eta Costa Rica) zuzenean landuko, baizik eta Amerika Erdialdeko eta Dominikar Errrepublikako Edateko Uraren eta Saneamenduaren Foroak (Foro Centroamericano y República Dominicana de Agua Potable y Saneamiento, FOCARD-APS) antolatutako jardueren bidez ere landuko da. Azken hori edateko ura eta saneamendu sistema eskura izateko eskubidea sustatzeko erakunde aldeaniztuna da. Izan ere, oinarritzko baldintza da hori osatzen duten 8 herrialdeetako (Belice, Costa Rica, El Salvador, Guatemala, Honduras, Nicaragua, Panama y Dominikar Errepublika) bizi-kalitatea eta biztanleriaren osasuna hobetzeko, horietako Gai Talde Sektorialen bidez.
Helburuak	▪ Gutxienez El Salvador ekialdeko Jocoro udalerriko 1000 familiak (5000 pertsonak), kalitatezko ur eta saneamendu zerbitzu jasangarriaren proiektuari esker, oinarritzko saneamenduari eta higiene intimoarekin lotutako informazio eta trebakuntza jasoko dute, batez ere eskola arloan. ▪ Eskualdea osatzen duen 8 herrialdeetako 400 pertsonak ur zerbitzuen hornikuntzari eta saneamendu jasangarriari buruzko trebakuntza eta laguntza-teknikoa jasoko dute, betiere genero-berdintasuna kontuan hartuz. Horri esker, proiektuaren I fasean baino hedapen handiagoa lortuko da. ▪ Genero ikuspegia proiektu guztian zehar aintzat hartu.
Irizpideak	▪ Azpiegitura-osagaiari dagokionez: Edateko ur-horniketa bermatzeko eredu jasangarriaren ezarpena, El Salvador-eko Jocoro udalerriko ur eta saneamendu zerbitzuak hobetzeko. Modu horretan, bizi-kalitatea eta biztanleriaren giza- eta ekonomia-aukerak handituz, bereziki emakumeak eta giza-talde zaurgarriak kontuan hartuz. ▪ Erakunde indartze-osagaiari dagokionez: Amerika Erdialdeko ur eta saneamendu zerbitzuen kudeaketa tekniko-operatiboaren planifikazio eta kudeaketa gaitasunak indartu eta garatu, horretarako, laguntza-teknikoa emanez bai modu birtualean eta baita aurrez aurre.
Egutegia	2022: Hiriko ur-sistemaren eraikuntza eta hobekuntza martxan jartzea eta aurreratzea Jocoron. 2023: Hiriko ur-hornikuntza sistemaren eraikuntza eta hobekuntza bukatzea Jocoron. Aldi berean, informazio-, hezkuntza- eta komunikazio-kanpainak abiaraziz, biztanlerian eta hezkuntza zentroetan genero-berdintasun ikuspegia duten kanpainak. Estatuko ur eta saneamendu zerbitzuen adierazlearen informazio-, jarraipen- eta jakinarazpen-mekanismo bat ezartzea Foroko kideen artean. Eskualdeko Saneamendu eta Lerrokatzerako Araudi Tekniko proposamen bat aurkeztea, Saneamendu Planak garatzeko. 2024: Jocoroko biztanleriari eta hezkuntza zentroein zuzendutako genero-berdintasun ikuspegidun informazio-, hezkuntza- eta komunikazio-kanpainak bukatzea, eta programaren emaitzak ebaluatu eta ezagutzera ematea.
Sare arduraduna	Euskal Fondoa

6 Proiektua - Bizileku bazterketa egoera txarrean dauden pertsona kopuruaren zenbaketa eta diagnostikoa

Proiektuaren definizioa	Etterik gabeko pertsonen gaueko zenbaketak Estatu Batuetan hasi ziren 1980ko hamarkadan. Bertan “s nights” deritze (ingelesaz shelter eta street-night direlako). Mende honetako lehen hamarkadan Espainian Estatuko hiri handietan zenbaketak hasi ziren, Madrilan eta Bartzelonan, esate baterako. Euskadiren kasuan, gaueko zenbaketak egin zituen lehen udalerria Bilbo izan zen 2010ean, eta ondoren, Donostian ere egin ziren 2011n. 2012an hiru hiriburuak aldi berean zenbaketa egitea adostu zuten. Ordutik, bi urterik behin egiten da urte bikoitietan eta geroz eta udalerrri gehiagok egiten dute zenbaketa. Zenbaketa horien jarraipena egiteko orduan, oso garrantzitsua izan da 2016ko uztailera EAEko Bizileku Bazterketa Egoera larrien Azterketa, Jarraipen eta Ikerketarako Erakundearen arteko Kolaborazio-Protokoloa. Horri esker, tokian tokiko administrazioek, aldundiko eta autonomia erkidegoko administrazioek, bi urterik behin gaueko zenbaketak egiteko konpromisoa hartu zuten. Horrez gain, bi urterik behin baita ere, bizileku bazterketari buruzko jardunaldi monografikoak antolatzea erabaki zuten. Azken zenbaketa 2020ko maiatzaren 4tik 10era egin zen eta 19 udalerrik parte hartu zuten (2018an baino zazpi gutxiagok). Udalerrri partaideak Euskadiko biztanleriaren %61a dira eta 348 zentro eta ostatu zerbitzu daude 43 udalerritan banatuta. Zenbaketa horretan kasik 2.800 pertsona hauteman ziren bizileku bazterketa egoera larrian. Horietatik gutxi batzuk (%5,8a), konfinamendua indarrean egon arren kalean jarraitzen zuten pertsonak ziren, hainbat arrazoi zirela medio. %12,5a aterpetxeetan eta ohiko abegi-etxeetan zeuden eta %30,2a pandemian ezarri ziren ostatueta. Azkenik, hautemandako pertsonen %6a genero indarkeriaren biktima ziren emakumeen aterpetxe zerbitzueta zeuden eta %45,6a giza bazterkeria egoeran dauden pertsonen bideratutako zerbitzu sozialetako aterpetxeetan zeuden. Momentu jakin batean bizileku bazterketa egoera larrian dauden pertsona kopurua jakitea berez erabilgarria bada ere, ikerketa honekin aurrera pausu bat ematea espero da, eta ez bakarrik pertsona kopurua zenbatu, baizik eta haien ezaugarri eta beharriaren nagusiak. Izan ere, horri esker, abiapuntu bat lor daiteke ostatu konponbideak eta beste mota askotako irtenbideak diseinatzeko. Diagnostiko egoki bat ezinbestekoa da pertsona horiei zuzendutako laguntza eta inklusio planak sortzeko. Azken hori, 2018-2021 Etterik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategiaren helburu nagusia da. Ondorioz, horren jarraipena egitea ezinbestekoa da, betiere kontuan hartuz bizileku bazterketa egoera larriak beste egoera konplexu batzuekin lotu ohi direla, gizarteari eta osasunari dagokionez. Izan ere, etterik gabeko pertsonen osasuna orokorrean biztanleriarena baino kaxkarragoa izaten da (“osasun arrakala”), azken hori da ikerketa honek hasieratik gailendu nahi izan duen kontuetako bat.
Helburuak	▪ 2018-2021 Etterik Gabeko Pertsonen Euskal Estrategia ebaluatzeko diagnostikoa eta Estrategia berri bat baten diseinuaren garrantzizko tresna izatea. ▪ Etxegabeziaren eta bizileku-bazterketaren aurka borrokatzeko beharrezkoa den hiriguneetako eta eskualdeko lantresnak diseinatzeko diagnostikoaren garrantzizko tresna izatea.
Irizpideak	▪ Egindako lanaz gain, egoerari eta horrekin lotutako arazoei buruzko ikerketa monografikoak burutzea. ▪ Beste hausnarketa- eta topaketa-jarduerak batzuk garatzea, 3 euskal erakunde mailak osatzen duten maila anitzeko sarearen kontzeptua sustatuz: Euskal Gobernua, Foru Aldundiak eta Udaletxeak.
Egutegia	2022: Bi urtez behingo zenbaketa eta diagnostiko jarduerak burutzea. 2023: Egoitza-bazterketari buruzko Jardunaldia antolatzea. 2024: Bi urtez behingo zenbaketa eta diagnostiko jarduerak burutzea.
Sare arduraduna	Berrituz

7 Proiektua - Euskadi Lagunkoia, adinekoentzat lagunkoiak diren udalerriak

Proiektuaren definizioa	Euskadi Lagunkoia Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak martxan jarritako eta Matia Institutuak garatutako ekimena da. 2015-2020 Zahartze Aktiboaren Euskal Estrategiak barne hartzen du, bertan sektore publiko eta pribatuko biztanleriaren parte hartzea sustatzen da, Euskadin adeitasun mugimendua bultzatzeko, horretarako, zahartzen diren pertsonentzat ingurunea egokituz. Munduko Osasun Erakundeak sustatutako “Age-friendly Environments Programme” ekimena du oinarri. Pertsonekin adeitsua den hirigune batean egiturak eta zerbitzuak berrantolatu behar dira, kalitate oneko zerbitzu seguruak eskaintzeko, herritarren gaitasunak kontuan hartu gabe, haien parte hartzea gizarteko alor guztietan sustatzeko asmoz. Ekimen hori Euskadiko hiriguneetan garatzeko orduan, OMEk adierazitako lan metodologia aintzat hartu da, etengabe hobekuntzak eginez. Horrez gain, lan metodologia horren oinarrietako bat “Bottom up” hurbilketa da, hau da, behetik gorako metodologia. Ondorioz, orokorrean biztanleriaren eta bereziki pertsona nagusien parte hartzea proiektuan oinarritzkoak dira. Prozesuan parte hartzen duten eragileen partaidetza prozesu bat eratuz garatuko da (biztanleria eta pertsona nagusiak; giza-eragileak eta sektore pribatua; eta administrazio publikoak). Prozesu horretan 8 esku-hartze alorretan banatutako ikerketa-jarduketara jarduerak burutuko dira: aire zabalean dauden gunek eta eraikinak, garraibidea, etxebizitza, giza-partaidetza, errespetua eta inklusio soziala, biztanleriaren partaidetza eta enplegua, komunikazioa eta informazioa, eta zerbitzu sozialak eta osasun zerbitzuak. Modu horretan, zahartze prozesua erabaki politikoak hartzeko orduan aintzat hartuko da, zerbitzu sozialak eta osasuna baino haratago doazen alorrak kontuan hartuz, zeharkako ikuspegi integratzaile bat oinarritzat hartuz. Euskadi Lagunkoia 2012an abiarazi zen. 2021eko maiatzean 66 udalerri parte hartzen zuten. Euskadiko biztanleria nagusiaren %71a Sareko udalerri batean bizi zen, ondorioz, 351.000 pertsonarentzat onuragarria da proiektua.
Helburuak	- Proiektua handitu, 10 udalerri berri gehituz, batez ere landa-gunekoak, 2024an 365.000 pertsona nagusiri zerbitzua eman ahal izateko. - Proiektuak udalerri bakoitzean eragin handiagoa izan, pertsona nagusi gehiagok parte hartuz eta zerbitzu publiko eta pribatu gehiagok giza-talde horren bizi-kalitatea hobetzeko konpromisoa hartuz.
Irizpideak	- Proiektuaren jarduera gakoak udalerri mailan burutzea mantendu, Talde Sustatzaile bat eratzeko orduan udalerrien laguntzari dagokionez, eta Jarduketara Plan Lokalek antolatutako jarduerari (diagnostikoa, garapena, ezarpena eta ebaluazioa) eta Sarearen dinamizazioari dagokionez. - Lan metodologia (gida, laguntza) biztanleria gutxiko eta sakabanatutako landa-guneetara moldatu. - Lagunsarea Komunikazio Plataforma eta esperientziak kontatzeko programa sustatu, modu horretan, udalerrien arteko ikaskuntza bultzatzeko. - Aintzatespen jarduerak sustatu, alde batetik, burututako lana balioesteko eta, beste alde batetik, enpresak haien zerbitzuak tokian tokiko errealitatera eta beharretara moldatzearen garrantziak jabetzea, giza-talde hori datozen hamarkadetan ugartu egingo dela kontuan hartuz.
Egutegia	2022: Jada dauden jarduerak finkatzea eta udalerri berriak gehitzea. 2023-2024: Landaguneetara egokitutako gidak argitaratzea, Lagunsarea eta esperientzia-truke programa eta ezagutze-jarduerak sustatzea.
Sare arduraduna	Euskadi Lagunkoia

8 Proiektua - Mugiment. Pertsona aktiboak

Proiektuaren definizioa	Mugiment 2013-an abiarazitako lankidetzazko proiektu bat da, horren helburua euskal gizarte aktiboak lortzea da. Proiektuak jarduera fisikoa sustatzeko eta sedentarismoa gutxitzeko hainbat ekimen hartzen ditu barne, inaktiboak diren pertsonak aktibo bihurtuz. Orain arte proiektuak ondoren azalduko diren 3 ekimen nagusi burutu ditu: ▪ JARDUERA FISIKORA BIDERATUTAKO ZERBITZUAK. Geldirik dauden pertsonei bideratutako udal-baliabide bat dira. Bertan, aholkularitza, orientabidea eta aditu baten laguntza jasoko dute, modu horretan, jarduera fisikoarekin lotutako ohiturak hobetuko dituzte, aldizka kirola egitea lortu arte. Normalean, zerbitzua lehen mailako arreta zentrotik hurbil kokatu ohi da. 2020 bukaeran, mota horretako 24 zerbitzu zeuden guztira Euskadin, lehen mailako 150 zentroz osatutako sare baten barruan. 2020an zerbitzu horiek 1118 pertsona lagundu zituzten. Nabarmena da COVID-19ak kopuru horri eragin ziola, izan ere, 2019an 1922 erabiltzaile egon ziren. ▪ MUGIMENT SAREAK. Sektore arteko lantaldeak dira eta horien helburuetako bat jarduera fisikoa sustatzea da. Sare horiek tokian tokikoak dira eta Mugimenten parte hartzen duen erakunde bat izan behar dute. Mugiment sareak lehenetsia dira Mugiment proiektuan, gainontzeko jarduerak antolatze oinarria baitira. Biztanleriarekin harremanetan dauden hainbat giza-alorretako pertsonek errealitatearen ikuspegia eta geldirik dauden pertsonen beharrak ezagutzera eman ditzakete. ▪ MUGIMENT KIROLTXARTELA. Txartel birtuala da, horri esker, udal kirol zerbitzuan harpideduna den pertsona batek doan erabil ditzake EAE programan parte hartzen duten kirol instalazioak. Horri esker, kirol jarduera sustatzen da eta baliabide publikoak optimizatzen dira. 2021eko maiatzean 50 udalerri parte hartzen zuten. Proiektua gure biztanleriaren osasun eta bizi-kalitate erronka handi baten parte da, sedentarismoa eta jarduera fisiko ezaren aurkako borrokaren parte, hain zuzen ere. Aldi berri honetan, proiektuaren helburuak ondorengo hauek dira: ▪ Pandemia aurretik programak zuen jarduera-maila eta hazkunde-eritmoa berreskuratu, izan ere, osasun larrialdiak, mugikortasun murrizketek eta urruntze fisikoak izugarri eragin dute programan. Eta momentu horretan sedentarismoa eta jarduera fisiko eza asko hazi da lehen aipatutako arrazoiak direla medio. ▪ EUSFIT MUGIMENT deritzon lan egiteko modu berri bat gehitu, eskolako osasun arloari dagokion egoera fisikora bideratutako zaintza-sistema bat sortuz. Hori lehenbiziko aldiz probatu da 2020-2021 ikasturtean EAEko 10 eskolako 1.100 ikasle baino gehiagorekin. Esperientzia pilotu horri esker, egoera fisiko kaxkarrari lotutako patologia kardiobaskularrak garatzeko arrisku handia duen euskal ikasle talde bat hauteman da. Hein handi batean, arrisku hori eguneroko jarduera fisikoa eskasa izatearen ondorioa da. Gainera, horrek eskola-errendimenduari eragiten dio. Ondorioz, giza-talde horri laguntza eskaini behar zaio bai eskola arloan eta baita gizarte orokorrean, jarduera fisikoa egunerokotasunera gehitu dezaten epe labur, ertain eta luzera.
Helburuak	▪ Jarduera fisikora bideratutako zerbitzu sare luze bat izatea 2024rako, bai pertsona nagusiekin eta baita eskolako ume eta gazteekin lan eginez, 1.000 biztanletik gorako udalerriri guztietara iristen. ▪ Gutxinaka, Mugiment Kiroltxartela ekimenean harpidetza sistema duten udalerrien %100a gehitu, Nafarroa eta Iparraldearekin mugan dauden udalerriri ere aintzat hartuz.
Irizpideak	▪ Jarduera fisikora bideratutako zerbitzuak indartu. ▪ Mugiment Sareak eta horiek sustatutako ekimenak indartu, ez bakarrik udalerrian edota euskualdean, baizik eta baita lanean, hezkuntzan... ▪ Eusfit Mugiment lerroa orokortu.
Egutegia	2022: Eusfit Mugiment martxan jartzea. 2022-2024 (jarraitua): Proiektuaren lan-lerroak finkatzea.
Sare arduraduna	Mugiment

9 Proiektua - A8: enplegugarritasuna hobetzeko ibilbide integralak

Proiektuaren definizioa	Gaitasunak garatzea (zeharkakoak, teknikoak, teknologikoak...) ezinbestekoa da pertsonen enplegugarritasuna hobetzeko eta haiek lan munduan txertatzeko. Giza-talde kalteberak gazteak, 45 urtetik gorakoak, emakumeak, etorkinak eta luzaroko langabeak dira, ondorioz, haiek dira krisi-ekonomikoen eta lan-merkatuaren aldaketek gehien kaltetzen dituztenak. Beharrezkoa da pertsona horiek gure ekoizpen-sarearen beharrianak kontuan hartuz trebatzea eta haiei laguntzea zeharkako gaitasunak ere garatu ditzaten. Euskadi-Futurelanen enplegu-aurreikuspen Behatokiak aldizka argitaratzen dituen datuak kontuan hartzen baditugu, zeharkako gaitasunak, gaitasun digitalak eta hizkuntzak etorkizunean ezinbestekoak izango direla ondorioztatuko dugu. 2020-2030erako dagoen enplegu-aurreikuspena aztertuz gero, gero eta profil trebatuagoak beharko dira, ikasketa-maila altuagoa dutenak, ondorioz, beharrezkoa da pertsonen prozesu integralean laguntzea, betiere haien abiapuntua aintzat hartuz. Zentzu horretan, proiektu honetan beharrianetan oinarritutako ibilbide integralak diseinatu behar dira, pertsonak lanean eta gizartearen txertatzeko eta prozesu guztian zehar behar duten laguntza emateko. Atzean inor ez geratzea da gure helburua. Horretarako 3 lan-lerroak garatuko dira: ▪ Ibilbide integralak lan- eta gizarte-beharrianak dituzten pertsonentzat . ▪ Ibilbide integralan lan-beharrianak dituzten pertsonentzat. ▪ Enpresei zuzendutako zeharkako ekintzak.
Helburuak	▪ Ibilbide integralean oinarritutako eredu bat lantzen duten agentzia gehiago egotea Garapen-en. ▪ Haien gaitasunak trebatu behar dituzten pertsonen enplegugarritasuna hobetzea. ▪ Enpresen beharrianak aintzat hartzea eta haien konpromisoa lortzea enpleguari dagokionez.
Irizpideak	▪ Gaitasun pertsonalak eta hizkuntza-gaitasunak garatzeko eta etorkinen ingurunea eta tokiko kultura ezagutzeko zuzendutako jarduerak sustatzea. ▪ Pertsonen banakako laguntza eta balioespen jarduerak bultzatzea. ▪ Gailentzen ari diren lanbide-profil berrien identifikazio goiztiarrean sakontzean, modu horretan, hezkuntza eskaintza beharrian berrietara egokitzeko.
Egutegia	2022-2024: Programaren garapen jarraitua egitea parte hartzen duten eskualdeetan.
Sare arduraduna	Garapen

10 Proiektua - Zaindu/InguruarEKIN, ekintzailletza jasangarriaren sustapena

Proiektuaren definizioa	Munduan bizi dugun gizarte, ekonomia eta ingurune krisiak gaur egungo ekoizpena eta kontsumoa ez direla jasangarriak argi utzi du. Ondorioz, ezinbestekoa da proiektu ekintzaile jasangarriak sustatzea. Ez bakarrik ekonomiari dagokionez, baizik eta baita gizarteari eta inguruneari dagokionez. “Ekintzailletza jasangarria” diogunean, jasangarritasunaren ikuspegitik negozio eraldatzaileak bultzatzeari buruz ari gara, eragin positiboa izateko ekonomiaren, gizartearen eta ingurunearen garapenari dagokionez. Inguruneari txarrera eragiten ez dion eta gizarteari onera eragiten dion eredu bat aintzat hartuz lan egitean datza. Garapen agentziek mota horretako proiektuak sustatu behar ditugu, gure udalerri eta eskualdeen garapen jasangarria bultzatzeko eta gero eta oparagoak izan daitezen. Jasangarritasuna epe luzera enpresek eta erakundeek etorkizunari aurre egiteko modu bakarra da. Ekintza egokiez gain, jasangarritasuna kontuan hartzea 2030 Agendan ezarritakoa betetzeko modua da, klima-larrialdiari aurre egiteko eta gero eta zorrotzagoa den kontsumitzaileari eskatzen duena emateko. Ondorioz, proiektu honen helburua ekonomia-, gizarte- eta ingurune-jasangarritasunari dagokionez eraldatzaileak diren proiektuak sustatzea da, eskualdea indartzeko eta Garapen Jasangarriako Helburuak betetzeko. Ekintzailletza gero eta garrantzitsuagoa da eta, GEM-ek (Global Entrepreneurship Monitor) dioenez, Euskadik jada urteak daramatza ekintzailletza tasa baxuarekin.
Helburuak	▪ Enpresa jasangarriak eta eragileak sortzea sustatzea. ▪ Enplegua sortzea. ▪ Enpresa-eredu berri bat ezagutzera ematea, gizartearentzat onuragarria izateaz gain, lehiakorra izateko jasangarritasunaren alde egitea defendatzen duen
Irizpideak	Esku-hartze eredua agentziek zehaztu beharko dute lankidetzan, eta proiektuan parte hartzen duten erakundeek ekarpenak gehitu beharko dituzte (enpresen tokiko- eta sektore-elkarteak, giza-erakundeak, ZOKak, finantzazioa eskaintzeko gaitasuna duten erakundeak...).
Egutegia	2022: Esku-hartze eredua zehaztea eta martxan jartzea. 2022-2024 (jarraitua): Ezarritako esku-hartze eredua kontuan hartuta, proiektua garatzea. 2024: Emaizak ebaluatu eta aurkeztea.
Sare arduraduna	Garapen

11 Proiektua - Trantsizio digitalaren bulego-sarea

Proiektuaren definizioa	Digitalazioa estrategia-erronka da eta enpresa gehienentzat oinarritzko beharrezkoa. Dena den, digitalizazio-beharrak asko aldatzen dira enpresa motaren eta tamainaren arabera. Enpresa handi gehienek haien prozesuak digitalizatu dituzte ETE laguntzaileak ere hori egitera bultzatuz. Beharrezko handiena momentu honetan ETEek dute, eta baita profesional eta autonomoek. Sektoreka, hiri-ekonomia (merkataritza, turismoa eta pertsonen zerbitzuak) da sektorerik ahulena. Orokorrean, enpresa txiki eta ertainek badakite digitalizazioa beharrezkoa dela, baina ez dakite nola egin. Horregatik, garrantzitsua da hasiera batean digitalizazio-trebakuntza eskaintzea eta gero, banan banako diagnostikoa egitea digitalizazioa modu egokian burutzeko. Ezinbestekoa da bigarren pausu hori banan banakoa izatea eta enpresa bakoitzaren beharretara moldatzea. Horrez gain, TicketBAI laster ezarriko da, Euskadiko fakturen kontrolerako sistema-digital berria da, jarduera ekonomiko bat burutzen duten pertsona fisiko eta juridiko orori zuzendutakoa. Ondorioz, digitalizazio-prozesua inoiz baino beharrezkoagoa da. Erronka horri aurre egiteko, garapen-agentziak ezinbestekoak dira. Haiek lurraldean ezartzeak, hedapen handiko ekintzak garatzea posible egiten du. "Trantsizio Digitaleko Bulegoen Sarea" abiarazten denean, posible izango da ETEen digitalizazio beharrei erantzuna ematea elkarbanatutako interbentzio eredu baten bidez. Gainera, banan banako eta lurralde osoko konponbideak lortuko dira trantsizio digitaleko bulegoen sareari esker, sare horrek, gainontzeko eragilean laguntzarekin, enpresak lagunduko baititu.
Helburuak	ETE kopuru esanguratsu batek aurrerapenak egitea digitalizazioari dagokionez, bereziki udal ekonomiarekin lotuta dauden sektoreetan (merkataritza, turismoa eta zerbitzuak).
Irizpideak	▪ Eskualde mailako ikerketak burutzea eskualde bakoitzean lehentasuna duten enpresen profila zehazteko. ▪ Proiektu pilotuak garatzea, behin eskualde mailan frogatuta, gainontzeko lurraldean burutu ahal izateko. ▪ Tokiko enpresen esperientzia arrakastatsuak aurkezten dituzten sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzei garrantzi berezia ematea.
Egutegia	2022: Bulego Sarea martxan jartzea. 2022-2024 (jarraitua): Proiektua garatzea, bai enpresen aholkularitzari dagokionez eta baita industria eta hiri-ekonomia alorretako digitalizazioaren analisi bat egiteari dagokionez. 2024: Emaizak ebaluatu eta aurkeztea.
Sare arduraduna	Garapen

12 Proiektua - Tokiko klima ekintza 2030 Udalsarea aintzat hartuz. Klima eta energiaren udaletxeen ituna

Proiektuaren definizioa	Klima-aldaketaren aurka borrokatzeko 2030 Udalsarea osatzen duten erakundeek konpromisoa aspaldikoa da, sarea sortu zutenean dagoeneko tokiko jardueren planetan konpromiso horren alde zeuden. 2005ean eratu zen lehenbiziko "Udalerria eta Klima-aldaketa" Talde-lana. Hasiera batean klima-aldaketa baretze-ikuspegi batetik kudeatu zen, baina 2008an baretze- eta moldaketa-ikuspegi integrala gehitu zen eta hori 2015ean konpromiso politikoarekin indartu zen, 2030 Agenda eta Pariseko Ituna onartu zirenean. Ordutik aurrera, alor hori garrantzitsua dela agerian geratu zen, eta duela gutxiko Larrialdi Aitorpenak kezka nabarmendu du. Klima eta Energiaren Udaletxeen Ituna tokiko klima eta energiaren aldeko udalerrien arteko mugimendurik garrantzitsuenak da munduan. Ituna 2008an onartu zen Europan eta horren helburu nagusia tokiko gobernuek bildu eta EBak klima eta energiari dagokionez ezarritako helburuak hobetzea zen. Ekimena oso arrakastatsua izan da, 57 herrialdeetako tokiko eta eskualdeko 7.000 agintari bildu baititu. Mundu-mailako itun horrek Euskadin duen eragina 21 udalerri partaide dituela da, guztira ia 1,7 milioi pertsonak parte hartzen dute, Euskadin bizi diren 2,2 milioi pertsonetatik. Itunera gehitzea marketing jarduera soil bat baino askoz gehiago da. Itun horren bidez, udalerriek Klimaren eta Energia Iraunkorraren Aldeko Ekintza Plana garatzeko konpromisoa hartzen dute, helburuak lortzeko eman beharreko pausuak ezarritik. Klima-aldaketaren aurkako borroka lehenetsia bat da eta biztanleria guztiak parte hartu behar du borroka horretan, baina bereziki erakunde publikoek. Izan ere, azken horiek bi erantzukizun dituzte: alde batetik, konpromiso horren erreferenteak izatea, eta, beste alde batetik, gainontzeko eragileek eta biztanleriaren konpromisoa sustatu eta lortzea. Horretarako, arauak ezarritik eta ekintzak dinamizatuz, hausnarketa eta elkarlan espazioak sortuz eta sentsibilizazio eta pedagogia lana eginez. Ondorengo jarduerak burutu beharko dira: ▪ Klima eta Energiaren Udaletxeen Itunarekin lotutako sentsibilizazio ekintzak. ▪ Erronka horri aurre egiteko beharrezkoak diren araudia eta planifikazio estrategikoa ezartzeko orduan parte hartzea, tokiko ikuspegia emanez horretarako osatutako lantaldeen bidez. Lantalde horiek 2030 Udalsarearen barruan klima-ekintzarekin lotuta egongo dira. ▪ Klima eta Energia Plan Lokalak abiaraztea toki- eta eskualde-mailan Energiaren Euskal Erakundearekin batera, 2050 Urban Life JP kontuan hartuz. ▪ Udalerri edo Eskualdeko Berotegi Efektuko Gasen Inbentarioa eta Karbono-Aztarna urtero kalkulatzeko lantresnak diseinatu, mantendu eta eguneratzea. Horretarako, udaletxeek gaitasun informazioa lokalak emanez eta berariazko lantaldeak osatuz. ▪ Udaletxeko langileak trebatzea horretarako jardunaldi teknikoak antolatuz, metodologia ezarritik eta informazioa eta ekintzak elkarbanatuz. Proiektuak hobetzeko laguntza eta aholkuak ematea. ▪ Euskal udalerriek trantsizio energetikoari eta klima-aldaketari dagokionez hartutako konpromisoa gizarteratzea.
Helburuak	▪ Tokiko klima ekintza sustatu baretze eta moldaketari dagokionez. ▪ Ikuspegi integrala eta politika ezberdinen arteko zeharkakotasuna sustatu, eta klima-aldaketaren aurka modu egokian borrokatzeko gaitasuna azpimarratu. Hori guztia kontuan hartuta, udal kudeaketako hainbat alor landu, hirietan espazio berde gehiago ezarritik eta konponbide naturalak bilatuz, zaborren kudeaketa hobetuz, energia-konsumoa gutxituz eta energia berriktarriak, mugikortasuna eta osasuna indartuz. ▪ Tokiko erakundeek gaur egun indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legeak ezarritako baldintzak betetzen lagundu.
Irizpideak	▪ Klima eta Energiaren Alkateen Ituna bereziki udalerri ertain eta txikietara hurbildu. ▪ Garrantzitsutzat joko da udaletxeko langileen trebakuntza, jardunaldi teknikoek bidez, metodologia jarraibideak diseinatu eta informazioa eta jardunbide onak elkarbanatuz.
Egutegia	2022 eta 2024an zehar garapen jarraitua egin beharko da.
Sare arduraduna	Udalsarea

13 Proiektua - Ekonomia zirkularra eta leihakortasunaren sustapena toki-mailan

Proiektuaren definizioa	Ekonomia zirkularra jasangarritasunarekin lotzen den kontzeptu ekonomiko bat da. Horren helburu nagusia produktuen, materialen eta baliabideen balioa ekonomian ahalik eta denbora gehien mantentzea eta zabor-sorkuntza gutxitzea da. Ekonomia zirkularra ezartzean datza, produktuen, zaborraren, materialen, uraren eta energiaren “bizitzaren zikloa ixtea”-ren printzipioa hartzen du oinarritzat. Toki- eta eskualde-mailan lehentasuna izan behar duen printzipioa da, hori burutzeko, eragile eta biztanle ororen konpromisoaz gain, lurraldean adostasunak eta kontsentsuak lortu behar direlako. Horregatik, proiektu honen helburua Ekonomia Zirkularra abiaraztea da toki- eta eskualde-mailan. Horretarako, Ekonomia Zirkularra sustatuko da bai administrazio publikoan eta baita enpresa- eta gizarte-sarean. 2019 eta 2020 artean 2030 Udalsareak antolatuta eta Garapen-ekin batera, Ekonomia Zirkular lantalde bat osatu zen, toki- eta eskualde-mailak administrazio-langileek ekonomia zirkularrari buruz zuten ezagutza elkabarbanatzea sustatzeko. Lan horren ondorioz, toki-mailan ekonomia zirkularra sustatzeko Gida bat argitaratu zen (2030 Udalsarea Koaderno, 21^ºzk.) eta 2020ko otsailean lantalde horren emaitzak aurkezteko Jardunaldi tekniko bat antolatu zen. Euskadin dagoeneko baudade ekonomia zirkularra sustatzeko hainbat ekimen. Bestalde, ekonomia-zirkularraren alorrean, hainbat finantziazio-lerro daude, mota horretako proiektuen garapena sustatzeko. Proiektu honen helburu Nagusia Ekonomia Zirkularraren kontzeptua abiaraztea da toki- eta eskualde-mailan. Horretarako, jarraibide praktikoak emango dira Ekonomia Zirkularra hainbat mailatan bultzatzeko, bai administrazio publikoan bertan, eta baita gizarte eta enpresa sarean. Ondorioz, lantalde berri bat jarriko da martxan Garapenekin elkarlanean. Talde hori ekonomia zirkularrari dagozkion tokiko ekintzetarako topagunea eta dinamizazio espazioa izango da. Lantalde horrek, alde batetik, gai horrekin lotutako azken urteetako esperientziak landu beharko ditu, eta, beste alde batetik, toki-mailan 2030 Ekonomia Zirkularraren Estrategia gauzatzeko dauden beharrianak eta eskaerak identifikatu beharko ditu. Horrez gain, Euskadiko udalerri eta eskualdeetan ekonomia zirkularra bultzatzeko eta tokiko ETEak ekonomia zirkularrean sartzeko tresnak diseinatu beharko ditu.
Helburuak	▪ Tamaina ezberdineko udalerrietan 2030 Agenda Lokalekin bateratutako ibilbide-orriak eskuragarri izatea eta emaitzak ematea. ▪ Ekonomia zirkularra sustatzeko lantresnak erabiltzea tokiko gobernantzan. ▪ ETE mailako enpresa- eta industria-sarean ekonomia zirkularra sustatzeko lankidetzak eta laguntza bultzatzea.
Irizpideak	▪ Ekonomia zirkularraren garapena sustatzeko beharrezkoak diren laguntza alor guztiak kontuan hartu beharko dira: erosketak eta kontratazio publiko berdea, ingurumen fiskalitatea, eragilearen sentsibilizazioa, laguntzak...
Egutegia	2022 eta 2024an zehar garapen jarraitua egin beharko da.
Sare arduraduna	Udalsarea, Garapen-ekin lankidetzan

14 Proiektua - 2030 Agendara eta GIHetara bideratutako tokiko gobernantza: toki ekintza eta jasangarritasun politiken ebaluazioa

Proiektuaren definizioa	Udalerri jasangarrien euskal sareak, Udalsarea 2030ek, Euskadiren tokiko garapen jasangarria bultzatzen du 2002tik. Azken 20 urteetako sare eta erakundeen arteko lanari esker, garapen jasangarria sustatzeko gobernantza-eredu bat ezarri da (2030 Agenda eta Pariseko Ituna kontuan hartuz). Ondorioz, ingurunea, ekonomia eta gizartea integratzen dituen ikuspegia bultzatu da, erakundeen arteko zeharkakotasuna, biztanleriaren partaidetza eta eragileen arteko lankidetzak sustatuz. 2030 udalsareak udal kudeaketa helburu zehatzak ezarri burutzea defendatzen du, tokiko politikak aldizka ebaluatuz eta garapen jasangarriaren adierazleak aintzat hartuz, horiek baitira etengabe hobetzeko, gardentasun publikoa bermatzeko eta biztanleriari kontuak emateko ezinbesteko elementuak. Horrela, erakunde eraginkorrak, ziurrak eta biztanleriarekin hurbilak direnak lortuko dira. Irizpide hori kontuan hartuta, sarea araupetutako metodologiak garatzen ari da, horrez gain, kudeaketa eta baliabide plataforma digitalak eratzen ere ari da. Hori guztia tokiko ikuspegi praktikoa batekin, udalaren lana bultzatu eta errazteko eta ikasitakoa elkarbanatzea sustatzeko. Udalerriek mintzaira bera erabiltzeak eta udalerrien arteko konparaketa egin ahal izateak haien arteko komunikazioa errazten du eta adimen komunitarioa eta tokiko garapen jasangarria lortzeko prozesua indartzen ditu. Euskadiren Tokiko Jasangarritasunaren Garapenaren Behatokia integrazio-plataforma da, eta adierazleak emaitzen jarraipena eta interpretazioa burutzeko eta e-mugiren bidez (tokiko agenden jarraipen-prozesuak eta kudeaketa errazten dituen aplikazio informatikoa) udalerrietako planen ebaluazioa egiteko lantresna da. ETJGB modu egokian kudeatuz gero, informazio gehigarria lor daiteke Euskadiko tokiko jasangarritasun politiken eraginkortasuna ebaluatzeko eta erronka eta aukera berriak identifikatzeko. Informazio hori guztia eskuragarri dauden hainbat txostenetan bilduta dago. Garapen Jasangarriko 16. (Bakea, Justizia eta Erakunde Sendoak) eta 17. helburuak (Helburuak lortzeko Aliantzak) ezartzen duten moduan, toki- eta eskualde-mailan garapen jasangarriaren prozesua sakontzeko, ezinbestekoa da gobernantza ireki eta aurreratu bat izatea. Gobernantza horrek ebaluazioa hobetu behar du, datu fidagarriak aintzat hartuz erabakiak hartzeko. Horrez gain, "gobernantza irekia" diogunean, 21 Agenda Lokalak biztanleriaren partaidetza sustatu ohi du, baina, horrez gain, datuak gehiago elkarbanatuko dira, kontuak emateari garrantzi handiagoa emanez, ezinbesteko elementua baita kontsumo- eta ekoizpen-eredu berriak ezartzeko prozesuak abiarazteko. Proiektuaren helburua 2030 Agendara eta GIHetara bideratutako tokiko gobernantza hobetzea da ondorengo jardueren bidez: ▪ Euskal udalerriak GJHei dagokienez burutzen duten lanaren ebaluazio-txostenak aldizka argitaratzea. ▪ Behatokia eta e-mugi lantresna egokitzen jarraitzea, udalerrien beharrianak kontuan hartuz, dimentsio irekia mantenduz, biztanleriaren eta tokiko eragileen partaidetza sustatzeko. ▪ Tokiko 2030 Agendaren tokiko jarduerak aurreikusi eta ezagutzera ematea baliabide digitalen (web-orrialdea, sare sozialak, albistegi elektronikoa...) eta topaketen bidez.
Helburuak	▪ Udaletxeek Tokiko 2030 Agendaren jarraibideak kontuan hartzea. ▪ Euskadiren Tokiko Jasangarritasunaren Garapenaren Behatokia eta e-mugi lantresna hobetzea. ▪ Tokiko 2030 Agenden bidez egindako aurrera pausoen ezagutza hobetzea, bai udalerri- eta eskualde-mailan, eta baita Euskadi osoa kontuan hartuz.
Irizpideak	▪ Proiektuaren barruan 2030 Agendan lan egiteko lantalde berriak sortu beharko dira, Tokiko 2030 Agendaren ezarpena errazteko. ▪ Bereziki indartu eta garrantzitsutzat jo beharko da erakundeen arteko koordinazioa, 2030 Agenda ikuspegia duen tokiko ekintzaren alde egiteko.
Egutegia	2022 eta 2024an zehar garapen jarraitua egin beharko da.
Sare arduraduna	Udalsarea

15 Proiektua - ELoGE, gobernantza bikaintasunerako zigilua

Proiektuaren definizioa	Gobernantza Bikaintasunerako Europako Zigilua (ELoGE), Europar Batzarrak sustatutako aintzatespen sistema bat da. Horren helburu nagusia tokian tokiko gobernuek elkarlanean aritzea eta haien kudeaketa eraginkorra izatea da, betiere jasagarritasuna kontuan hartuz. Zigiluak zerbitzu publikoak, biztanleriaren partaidetza eta haien beharrianak asetzeko politikak ezartzeko gobernantza bultzatzen du. ELoGE metodologia autoebaluazioa sistema berri bat da: ("Benchmark") adierazleen lantresna bat, demokrazia europarraren oinarritzko balioak ordezkatzeko dituzten Gobernantza Onaren 12 irizpideak nola betetzen diren neurtzeko balio duena. Zigilua lortzeaz gain, ELoGEn parte hartzeak Udaletxeak etengabe hobetzeko eta bikaintasuna lortzeko konpromisoa hartzen duela erakusten du. Zigilua bi urterik behin berritzen da, udaletxeak berrebaluazioa egin dezan, Gobernantza Onarekin duen konpromisoa hobetu eta barneratzeko. 2017tik EUEDEL Euskal Udaletxeei Zigilua emateko ardura duen plataforma da. 2017 eta 2018an zehar tamaina ezberdineko hainbat udalerrian proiektu pilotuak sustatu dira lantresna europarra frogatzeko eta euskal udalerrietako errealitatera moldatzeko. 2020 arte ekimen horren 3 edizio ospatu dira eta 16 udalerri parte hartu dute, horietatik xx-k zigilua jaso dute. Behin metodologia euskal errealitatera moldatu eta lehenbiziko frogak egin ondoren, 2021-2024an proiektua hedatu eta hobetzea aurreikusten da, ondoren adierazten den moduan lan eginez: ▪ GJHein lerrokatzea. Europako Batzordeak ezarritako gobernantza oneko 12 printzipioak badaude jada GJHak osatzen dituzten 169 xedeen artean, baina helburua lerrokatze hori agerian jartzea da. ▪ Proiektuaren gizarteratze handiagoa eta tokiko gobernantzaren bikaintasunaren balioa gailentzea. Komunikazio zuzenaren alde egiteaz gain, jarduera berrietako batzuk irekiak izatea da xedea, udalerri orok parte hartu ahal dezan eta, modu horretan, udalerri berriak programaren parte izatea errazteko.
Helburuak	▪ Proiektuan parte hartzeko eta horren kudeaketa hobetzeko prest dauden udaletxe gehiago. ▪ Gobernantza Oneko 12 printzipioetan argitaratutako eta behar bezala eguneratutako jardunbide egokien zerrenda izate. ▪ Prestakuntza jarduera osagarriak antolatzea.
Irizpideak	▪ Partaidetza irekia. Lehen edizioak tresna europarra hautatutako hainbat tamaina eta errealitateko tokiko gobernuarekin frogatzeko proiektu pilotuak izan ziren arren, fase honetan proiektua 5.000 biztanletik gorako udalerri guztiei zuzenduta egongo da. ▪ Sarea eta elkarlanean ikastea indartzea eta harremanak errazten dituzten aurrez aurreko jarduerak berriz antolatzea. ▪ Trebakuntza jarduerak gehitu, udaletxeek haien gobernantza hobetzeko tresna zehatzak izan ditzaten.
Egutegia	2022: Programaren zuzendutako edizio berri bat abiaraztea, ezagutzera emateko jarduerak indartuz. 2022: Metodologia eta laguntza-tresna udalerri txikiaren errealitatera egokitzea. Prestakuntza-jarduerak programan gehitzea. 2022-2024 (jarraitua): Erakunde partaideei laguntzea, bai kanpoko ezagutza tresna gisa erabiltzeko eta baita gobernantzarekin lotutako hobeakuntza alorrak identifikatzeko diagnostikoa egiteko jarduerak erabilgarri izan dadin.
Sare arduraduna	EUEDEL